

28/2024 EBAZPENA, IRAILAREN 2KOA, BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIARENA, II. PELLO APEZETXEA ZUBIRI IKERKETA BEKAREN SARIDUNARI, PAULA LAITA PALLARESI, SARIAREN AZKEN ZATIA ORDAINTZEA XEDATZEN DUENA.

Azaroaren 13ko 33/2023 ebazpenaren bitartez Pello Apezetxea Zubiri Ikerketa Beka Paula Laita Pallaresi eta hark osatutako lantaldeari esleitzea ebatzi nuen. Azaroaren 28ko 37/2023 ebazpenaren bitartez sariaren lehen zatia, kopuru osoaren % 40 (2.800,00 euro), ordaintzea ebatzi nuen.

Ondoren, iker taldeak "Bortziriako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzeptzioak eta jarrerak" behin-behineko memoria aurkeztu zuen, eta apirilaren 30eko 13/2024 ebazpenaren bitartez sariaren bigarren zatia, kopuru osoaren % 30 (2.100,00 euro), ordaintzea ebatzi nuen.

Deialdiak ezarritako epearen barrenean, 2024ko uztailaren 17ko datarekin, Laitak osatutako iker taldeak azkeneko memoria aurkeztu du. Epaimahaia 2024ko abuztuaren 29an bildu da memoria hori baloratzeko. Epaimahaiak ikerketa lana ontzat emanik, sariaren hirugarren zatia, kopuru osoaren % 30a (2.100,00 euro), ordain dakion ebatzea dagokit.

Hori guzia ikusirik, honakoa EBATZI DUT:

- 1) Paula Laita Pallaresi sariaren hirugarren zatia, kopuru osoaren % 30 (2.100,00 euro), ordaintzea.
- 2) Interesatuari ebazpen honen berri ematea.

Eta behar den lekuan hala ager dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, hauxe sinatu dut, sinadura digitalean agertzen den datan.

Lehendakaria
Leire Mitxelena Gamio

ZIURTATZEN DU, IDAZKARIAK
Nagore Madariaga Iriarte